



**2022KO UZTAILAREN 18KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko uztailaren hemezortzian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2022ko uztailaren 4an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 36 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA HIRU MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMASEI euro ETA HIRUROGEITA HAMAR zentimo (83.736,70 €)takoa onartzea erabaki da.

**III.- KALEAN UTZITAKO ANIMALIAK JASOTZEKO ZERBITZUA GIPUZKOAKO ANIMALIAK
ETA LANDAREAK BABESTEKO ELKARTEAREKIN HITZARMENA.**

Eusko Legebiltzarraren urriaren 29ko 6/1993 Legeak, animaliak babestekoak, besteak beste, udalei ezartzen die kalean utzitako animaliak jasotzearen ardura. Hori horrela izanda, udal honek hitzarmena izenpetu zuen 2005ean Gipuzkoako Animalia eta Landareak Babesteko Elkartearekin (GALBE), kalean jasotako animaliak babesetxe horretara eramateko. Babesetxe horretan animaliak 30 egun edukitzen dira gehienez ere eta epe horretan inork ez baditu hartzen, hil egiten dituzte. Udalak, babesetxera eramandako animalia bakoitzarengatik, hau jasotzea eta 30 eguneko mantenuaren gastuaren pareko zenbatekoa ordaintzen zuen orain arte.

Orain Eusko Legebiltzarrak beste lege bat onartu du, ekainaren 30eko 9/2022 Legea, etxeko animaliak babesteari buruzkoa. Lege berri honek lehengo bertan behera utzi du, eta lege berriak, besteak beste, babesetxeetan dauden animaliak dagokion epea igaro delako hiltzea debekatu egiten du.

Hau honela izanda, GALBEk, lehen ordaintzen zenaz gain, udalak hileroko kuota finko bat ordaintzea eskatzen du, hilean 250€+BEZ, baldin eta udalak kalean bildutako animaliak babesetxera eramaten jarraitu nahi baldin badu behintzat.

Hau guztia honela, eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

Lehena.- Udalak kalean bildutako etxeko animaliak Gipuzkoako Animalia eta Landarean Babesetxera eraman ahal izateko, Gipuzkoako Animalia eta Landareak Babesteko Elkar-tearekin (GALBE) izenpetu beharreko lankidetzaz hitzarmen berria, akordio honen aurrekarietan azaldu dena eta bere espedientean jasota dagoena, onartzea.

Bigarrena.- Lankidetzaz hitzarmen hau udalaren izenean izenpetu dezan alkatea ahalmentzea.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 22-11-04 zk. esped.: zerbitzua astean 2 ordutik 4 ordura handitzea, ekainaren 22tik aurrera, onuradunak laguntza gehiago behar duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100 izango da.
- 22-11-07 zk. esped.: zerbitzuan alta ematea uztailaren 7tik aurrera, astelehenetik ostiralera eguncan 2 ordu, laguntza pertsonalcrako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 22-01-009 zk. esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50€ ematea ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 22-01-010 zk. esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50€ eta alokairu gastuetarako hilean 250€ ematea, ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 22-01-011 zk. esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 58,28€ eta alokairu gastuetarako hilean 157,50€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %63 da.

Adin txikikoen eguneko zentroraz joateko garraio laguntza.-

- 21-19-01 zk. esped.: Donostiako "Berritzu"ra joateagatik joan etorrien gastuak ordaintzeko, uztailen 73,30€ ematea.

V.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara Batzordetik Tokiko Gobernu Batzarrera dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, honako erabaki hauek hartu dira:

UDGida baimena euskaraz ateratzeagatik.-

Gida baimena euskaraz ateratzeagatik, bere espedientean dauden hiru lagunei, bakoitzari 100 € eta guztira 300€ ematea.





Ordainketa aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik egingo da.

- Euskara ko eskoletara joateagatik.-

2021-2022 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntza ematea. Bi ikasle dira, bere espedientean dauden datuen arabera, eta guztira 1.999€ emango dira.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik egingo da.

VI.- JARDUERA EKONOMIKOKO DIRULAGUNTZAK .-

Jarduera ekonomikoko batzordetik merkatariei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bosgarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Merkataria	Zenbatekoa
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAP.)	120 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	10 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	15 €
GOITIA AUTOESKOLA	1.575 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	10 €
OPILTXO SL (BIKA)	25 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	35 €
ANA CRISTINA OLANO (ESTETIKA ZEN)	1.420 €
GUZTIRA	3.210 €

Ordainketa hauengatik udalari dagokion gastua aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik ordainduko da.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak hainbat gairi buruzko informazioa eman du eta bestalde hurrengo tokiko gobernu batzarraren bilkura 2022ko abuztuaren 1ean, arratsaldeko 2 eta erdietan egingo dela finkatu da.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.